

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Jende ugari aurkitzen da zer jantzi ez dakienaren paradarekin goiz gehienetan. Lehengo hau probatu ondoren hura, ia ezinezkoa bilakatzen da lehenengoan arropa gustukoa aurkitzea baina ispilu honekin arazo guzti horiek desagertuko dira.

Lehiakideetatik bereziko gaituen faktore garrantzitsuena kalitatea izango da. Dohaineko muntatze prozesu baten gain, ispiluaren barne inteligentzia azken eguneratutako aplikazioz josia egongo da eta gainera ispiluaren kanpo zein barne kristalak kapa bikoitz batez osatua egongo da segurtasuna emanaz.

Amaitzeko desberdinduko gaituen beste faktore garrantzitsu bat diseinuak izango dira, izan ere, diseinatzaile talde ezin prestatu hobeez osatuta egongo da gure enpresa eta gainera diseinuak azken modakoak izateaz gain, enpresak eskatutako diseinuak fabrikatzeko aukera ere izango du.